

Diru iturriak

Lokala, makinak eta lehengaiak erosteko diru kantitate izugarria behar dugunez bankuari mailegu bat eskatuko diogu, sarrerak edukitzen joan heinean maileguko dirua itzultzen joango gara. Beste enpresa batzuekin hitz egin genezake tratu bat egiteko, adibidez zabor biltzaileekin, jasotzen duten plastikoa guri emateko edota ingurunearekin kontzientziazatuta dagoen jendeak plastikoa ekar diezaguke. Honela gure enpresa bultzatzeaz gain, ingurumena zaintzen dugu.



Maileguaren %45 a lokala eta makinak finantzatzeko erabiliko dugu. Lehengaiak ekarri egingo dizkigutenez ez dugu horretan inbertitu behar eta azkenik beste %20a kamioi edo furgoneta erosteko, lehengaiak enpresara garraiatzeko eta bezeroei haien eskariak etxeetara eramateko. Hasieran web-orria egingo dugu eta %5a bideratuko dugu publizitatera. %30a langileei soldata ordaintzeko eta aurreikusitako gabeko gastuentzat izango da

Makinak erosita eduki ondoren portzentaje horiek aldatzen joango dira beharren arabera. Makinak hasieran erosi eta mantenimendua urtean behin denez ez dugu hainbeste gastatuko eta diru hori beste gauzetarako baliagarri izango zaigu. Lehengaiak edonon aurkitu ditzakegunez ez dugu dirurik gastatu behar itsasontziak erabiltzen, kamioi txiki batekin moldatu gaitzke lokaletik etxeetara altzariak eramaten, gainera ez dira denbora luzeko bidaiak egingo, beraz gasolinan gutxiago gastatuko dugu.

Altzarien prezioa haren ezaugarri eta lehengaien araberako prezioa izango du. Ez du berdin balio armairu handi batek eta aulki batek, hala ere prezioak web orrian eta dendan egongo dira jarriak altzariaren ezaugarriekin batera.